

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi Berastegi**

Pena eta beldurra ematen duten bi inbestidura saio

Pedro Sanchezen inbestidura saioak asper-
tu duen horietakoa naiz. Espektakuluak
tristatu egin nau erabat eta, nahita, ihes-
plan ezberdinetan ibili naiz. Beste kezka
batzuek eta jakin minek bultzatuta, he-
men Euskal Herrian baina urruti-urrutian. Eta horie-
tan nengoela Boris Jonhsonen inbestidura gertatu da,
Sanchezen porrota baino kezkarriagoa zaidana,
zenbait burutazio piztu dizkidana.

Kuriosoa da, baina gertakari politikoak berdintzera
jotzen dute Britainia Handian eta Ameriketako Estatu
Batuetan. Horrela gertatu zen 80ko hamarkadan That-
cher-Reagan bikotearen aro eta politikekin, eta, berriz,
2016an, britainiarrek Brexitaren alde eta estatubatua-
rrek Trumpen alde bozkatzean. Paralelismoak, analo-
giak, antzekotasunak... dei-
tu nahi bezala, baina bada
errepikatzen den errima.

Benetan deigarria egin
zait Johnsonen hautapen
“demokratikoa”. Alderdi
Kontserbadoreak dituen
160.000 kideen artean hau-
tatu dute, %71 gizonezkoak
eta %97 zuriak direnak, ia
erdiak baino gehiago 55 ur-
tetik gorakoak –66 urtetik
gorakoak %40–. Erraz esa-
ten da: populazioaren %0,2 eskas bat, populazioa bera
baino askoz ere zaharragoa eta zuriagoa gainera.

Boris Johnson Trump baino arriskutsuagoa al da?
Biak dira goi klaseko ahoberoak, biak bufoi itxurakoak,
biak gizonak, biak zuriak. Biek dituzte atzean astakeria
arrazista, sexista eta homofobikoen bilduma partiku-
larrak. Badituzte ezberdintasunak –Johnson politikari
profesionalagoa da, bere babesak alderdikoiagoak dira
eta ez da hain karismatikoa–, baina, funtsean, esan li-
teke Boris Johnson bera dela aurkitu daitekeen Donald
Trump europar baten antzekoena.

Johnsonen aldekoek diotenez, ez da esaten duen guz-
tia serio hartu behar, behin hainbeste amesten zuen
postura iritsita moderatu egingo dela jakitera emanez,

arrazional eta orekatuagoa bilakatuko dela. Baina
ahaztu egiten dute kanpokoak eta gutxiengoak dea-
brutuz eta jipoituz, aurkariei saldukeria egotzita, bote-
rera iritsi diren liderrek ez dutela inongo beharrik gero
formula irabazle hori alboratzeko. Ez zuten egin 20ko
eta 30eko hamarkadetako Europako lider faxistek eta
ez dute egiten egungoek ere. Trumpek jarraitzen du
eta jarraituko du emakume kongresukide beltzei, mu-
latoei, latinoei «etxera bueltatzeko» esanez, eta, John-
sonek, britainiarren dirua lapurtzen duen Bruselako
munstro burokratikoa madarikatzen.

Egia da, egia denez, Johnsonek oraindik ez dituela
Trumpek esandako astakerien parekoak esan. Baina
are arriskutsuagoa izan daiteke. Trumpek oraindik
orain baduelako errealismo eta kontu pixka-pixka bat;

Johnsonen inbestidura bere alderdiko
160.000 kideek erabaki dute, %71
gizonak, %97 zuriak eta ia erdiak 66 urtetik
gorakoak: populazioaren %0,2 eskas bat

ez da oraindik inorekin gerra betean hasi. Erraza du, al-
de batetik, «Amerika berriro handi egitea» aldarrika-
tzea, zuzentzen duen herrialdea denetan boteretsuena
delako eta luzaroan horrela jarraituko duelako. Britai-
nia Handiaren kasuan ez da horrela, Europar Batasu-
naren aurka joz ez du bere aspaldiko handitasuna be-
rreskuratuko, ez da indartuko, AEBen altzora joango da
ezinbestean. Bestalde, AEBak beti egon dira banatuta,
arraza segregazioaren eta esklabismoaren zauriak ire-
kita mantendu dira. Brexitak Britainia Handian ireki-
tako zauriak, berriz, berriagoak, freskoagoak dira, eta
jauzi handia suposatzen dute iluntasunaren eremu-
rantz. Eta gauza jakina da argi-itzal horietan hartzen
dutela munstroek, eta munstrokeriek, erliebe osoa. •